

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Uniformeak alokatu eta garbitzeaz arduratzen den Indusal Navarra SA instalazioak handitzeko proiektua ezagutu du Barcina Lehendakariak

Martzillan egoitza duen enpresak obrak datorren urtean hasia aurreikusten du, 4,5 milioi euro inguruko inbertsioarekin

Lunes, 16 de abril de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Angulok Indusal Navarra SA enpresa bisitatu du gaur. Enpresa hori Martzillan dago, uniformeak alokatzeaz eta garbitzeaz arduratzen da eta datorren urtean bere instalazioak handitzea aurreikusten du. 4,5 milioi euro inguruko inbertsioa izango da eta 50 bat lanpostu sortuko ditu.

Espainia guztian 21 zentro dituen Indusalgo zuzendaritza-kideek fabrika erakutsi diete Lehendakariari eta Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilari Lourdes Goicoecheari. Zehazki, bisita gidatu eta fabrikaren zabaltzeari buruzko xehetasunen berri eman dute: Indusalgo zuzendari Ignacio Zaragüetak; Administrazio Kontseiluko lehendakari Miguel Erburuk; eta Indusal Navarrako zuzendari Luis Reimóndez-ek. Fabrika Funeserako errepidean dago. Bertan izan da ere udalerrri horretako alkate José María Abárzuza.

3.600 metro koadroko fabrika 7.500 euroko orube batean dago, egunean 36 tona ekoizteko gai dena, eta orduko 1.500 uniforme arte prozesatuta. Handitzearekin, sektore berriei erantzuteko jasotzen dena, fabrikak 2.000 metro koadro irabaziko ditu, azaleraren 5.500 metro koadro hartzeko.

Indusalek Martzillatik ondorengo sektoretako arroparen alokairua eta garbiketako beharrei erantzuten die: ostalaritza, sukaldaritza, ospitaletako zerbitzuak eta Nafarroan – Osasunbidearena, esaterako – , Errioxan, Gipuzkoan eta Burgosen dauden beste hainbat sektoretako lan-arropa. Nafarroan beste bi enpresa ditu, Mutilvan dagoen Lavandería Industrial Olimpia eta Tuteran dagoen Lavandería Industrial Navarra. Hiru egoitzetan 300 lagunek egiten dute lan, 260k zuzenean eta 40k zeharka. Zehazki,



Barcina Lehendakaria eta Goicoechea kontseilaria, Indusal Navarra enpresara egindako bisitan.

1989an irekitako Martzillako fabrikak 170 pertsonari ematen die lan.